

## **GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOKO BARNE ARAUDIAREN ERREGLAMENDUA**

### **1.Xedapen orokorrak**

1.1. Erreklamendu honen xedea Giltxaurdi Udal Kirol instalazioaren erabilera arautzea da. Instalazio honetan igerilekuak, jakuzzia, Kirol anitzeko gela, muskulazio gela, sauna lehorra, lurrunezko bainua, aldagelak, kanpoko zonaldea eta harrera sartzen dira.

2.2. Giltxaurdi udal Kirol instalazioa edozein herritarrek erabiltzeko aukera izanen du, baldin eta hau erabiltzeko baldintza guztiak betetzen baditu.

3.3. Erreklamendu hau eskuragarri egonen da instalazioko harreran edozein pertsonak kontsultatu ahal izateko.

### **2. Abonamendua**

Edozein pertsonak abonatu ahal izateko Giltxaurdi UKI-ko web gunean ( [www.giltxaurdi.eus](http://www.giltxaurdi.eus)) inskripzio orria bete beharko du. Neguko eta urteko abonamenduen kasuan, inskripzio orria betetzen duen momentuan, matrikula eta dagokion kuota kobratuko zaizkio banku-helbideratze bidez, eta hilabeteko zein udako abonamenduen kasuan, abonamendu osoa kobratuko zaio era berean.

Eguneko sarrera eta 10 eguneko bonoa duten pertsonak izan ezik, gainerako abonatu guztiei akreditazio txartela emanen zaie instalazioan sartu ahal izateko. Txartel hori instalazioan sartzeko derrigorrezkoa izanen da.

#### **2.1. Abonatu motak:**

a. Urteko abonatuak.

Hauek urte osoan instalazioa erabiltzeko eskubidea dute. Sarrerako matrikula eta hiru hilabeteari dagokion kuota alta emateko momentuan ordaindu beharko dute, eta hiru hilabeteko kobratuko zaie abonamenduaren kuota banku-helbideratze bidez. Erreziboa helbideratzeko, abonatzen den pertsonak kontu zenbakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du web gunean abonatzen den momentuan.

- Urteko abonoa izanta familia ugariaren txartela duten pertsonak, %15eko deskontua izanen dute urteko abonoari dagokion hilabeteko kuotetan. Deskontu hau aplikatu ahal izateko familia ugariaren txartela atxikitu beharko dute web gunean abonamenduaren alta ematen den momentuan.

- Bi guraso abonatuak: 4-13 urte bitarte dituzten haurren kasuan, bi gurasoek urteko abonamendua baldin badute, sarrerako matrikula doan izanen dute. Horretaz gain, kasu hauetan %11ko deskontua izanen dute urteko abonamenduari dagokien hilabeteko kuotetan.

Abonamendu honen iraupena abonatuak baja eman arte da.

#### b. Neguko abonatuak

Abonatu hauek instalazioa neguko denboraldian erabiltzeko eskubidea dute, hau da, irailaren 16tik ekainaren 15a arte. Sarrerako matrikula eta hiru hilabeteari dagokion kuota alta emateko momentuan ordaindu beharko dute, eta hiru hilabetero kobratuko zaie abonamenduaren kuota banku- helbideratze bidez. Erreziboa helbideratzeko, abonatzen den pertsonak kontu zenbakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du web gunetik abonatzen den momentuan.

Abonamendu honen iraupena abonatuak baja eman arte da.

#### c. Udako abonatuak

Abonamendu mota hau udako denboraldian erabil daiteke, ekainaren 16etik irailaren 15a arte, hain zuzen ere. Ordainketa aldi batean egingen da, bankuz. Erreziboa helbideratzeko, abonatzen den pertsonak kontu zenbakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du web gunetik abonatzen den momentuan.

#### d. Hilabeteko abonatuak

Abonamendu mota honek, egiten den momentutik hilabete bateko balioa du. Ordainketa, abonamendua egiten den momentuan egingen da banku-helbideratze bidez. Erreziboa helbideratzeko, abonatzen den pertsonak kontu zenbakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du web gunetik abonatzen den momentuan.

Desgaitasuna duten pertsonak

Desgaitasuna duten pertsonak tarifa bereziak dituzte.

- Desgaitasuna %33 eta %65 tartekoa baldin bada, %75deskontua aplikatuko zaie bai sarrerako matrikulan eta baita hilabeteko kuotetan ere.

- Desgaitasuna %66a edo gehiago duten pertsonak abonamendua doan izanen dute.

Deskontu hauek abonamendu zein sarrera mota guztietan aplikatuko dira.

Desgaitasuna justifikatzeko, dagokion txartela aurkeztu beharko da web gunetik alta ematen den momentuan.

Hobariak:

Urteko abonamenduan errentaren araberako hobariak aplikatuko dira. Hobari hauek urtero berrituko dira.

## **2.2. Abonamenduen ordainketak eta bajak**

a. Sarrerako matrikula abonamendua egiten den unean ordaindu beharko da bertan, eta baita hiru hilabeteari dagokion kuota ere. Hortik aitzin, ordainketa guztiak bankuz eginen dira hiru hilabetero. Ordainketak urtarrilan, apirilean, uztailan eta urrian izanen dira ( neguko abonamenduen kasuan uztailkoa ez da ordaintzen, izan ere, udako denboraldian ez baita abonamendurik).

b. Abonatua den pertsonak erreziboa itzuliz gero, instalazioko langileek telefonoz deituko diote erreziboa itzulia iritsi dela jakinarazteko. Baja eman nahi badu, hilabete horri dagokion diru kopurua ordaindu beharko du. Erreziboa bertze arrazoiren batengatik itzulia iritsi bada, aldis, 15 eguneko epea izanen du abonatuak errezibo hori instalazioan ordaintzeko.

15 egun horiek pasatuta ez bada itzultako errezibo hori ordaintzen, pertsona horri baja emanen zaio instalazioan, eta ezingo da sartu zor hori kitatu arte. Berrito abonoa egin ahal izateko, matrikula eta erreziboa itzuli duen hilabete horri dagokion diru kopurua ordaindu beharko du.

Errezibo bat itzultzeak komisio bat ordaintzea izanen du ondorio.

c. Hilabetearen 10a arte abonamenduan alta ematen duten pertsonak hilabete osoa ordainduko dute. Hilabetearen 11tik 20era, hilabete erdia ordainduko dute, eta 21etik aitzin alta emanez gero, ez zaie hilabete horri dagokion diru kopurua kobratuko.

d. Abonatua den pertsonak abonamenduaren baja eman nahi badu, hiru hilabeteko kuota kobratu baino lehen egin beharko du.

e. Baja, web guneko "bajak" atalean dagoen inprimakia behar bezala beteta eskatu beharko da.

## **2.3. Abonatuen txartela**

a. Urteko, neguko edo hilabeteko abonamendua egiten duten pertsonen instalazioan sartzeko txartela emanen zaie.

b. Txartel hori derrigorrezkoa izanen da instalazioan sartu ahal izateko, harreraren dagoen irakurgailu elektronikotik pasatu beharko delarik.

c. Txartela galtzen edo hausten bada, abonatuak 5€ ordaindu beharko ditu harreraren berri bat egiteko.

d. Abonatu txartela pertsonala eta transferiezina da. Txartela bertze norbaiteri utziz gero, isuna izanen du bai txartelaren jabeak eta baita erabiltzen duenak ere.

#### **2.4. Abonatuak dituzten eskubideak:**

a. Abonatu den pertsonak instalazioa behar den ordutegi eta egunetan erabiltzeko eskubidea izanen du, beti adinari dagokion arautegia errespetatuz, eta behar diren kuota guztiak ordainduak baditu.

b. Urteko abonamendua duen pertsonak, urte osoko jardueran %50eko deskontua izanen du.

c. Urteko abonamendua duen pertsonak igeriketako ikastarotan %40eko deskontua izanen du. Deskontu hau 4 urtetik behiti dituzten haurrei ere aplikatuko zaie, baldin eta guraso batek urteko abonamendua badu.

d. Urteko abonamendua duen pertsonak, errenta aitortpenaren arabera dauden hobariei lotzeko eskubidea izanen du.

e. Abonatu den pertsonak erreklamazio edo iradokizun orria aurkezteko eskubidea izanen du, eta Giltxaurki UKIko kudeatzailearen erantzuna jasoko du.

#### **3. Abonatuak ez dauden pertsonak**

Giltxaurdi UKIn abonatuak ez dauden pertsonak modu honetan erabil dezakete instalazioa:

a. Eguneko sarrera ordainduz

Eguneko sarrera ordaintzeak egun guztian zehar instalazioa erabiltzeko aukera ematen du.

b. 10 eguneko sarrera ordainduz

10 eguneko sarrera ordaintzeko aukera dago. Txartel hau bi hilabetetan erabil daiteke, eta ez da pertsonala, pertsona batek baino gehiagok erabiltzeko aukera ematen du. Txartel hau egiten den momentuan ordaindu behar da instalazioko harreran.

Kasu hauetan guztietan behin ordainketa egin ondoren ez da dirua itzuliko.

#### **4. Ikastaroak**

Hauek dira Giltxaurdi UKIk eskeintzen dituen ikastaro motak iraupenaren arabera sailkatuta:

a. Lehorrekoak . Urrian, urtarrilean eta martxoan izaten dira.

b. Igeriketa ikastaroak. Urrian, urtarrilean eta martxoan izaten dira.

c. Udako ikastaroak. Udako denboraldian eskeintzen direnak.

Giltxaurdi UKIk bertze ikastaro motaren bat eskeintzeko aukera izanen du.

#### **4.1. Ikastaroetan izena eman ahal izateko bete beharrekoa:**

a. Giltxaurdi UKIn ordainketa guztiak eguneratuak izatea.

b. Jarduera egitea eragozten duen osasun arazorik ez izatea.

c. Jardueraren ordainketa horretarako dauden egunetan egitea.

d. Jarduera burutu ahal izateko adin tartea izatea.

#### **4.2. Izena emateak eta ordainketa**

a. Izena emateko lehenetsuna Baztanen erroldatuak izanen dute. Lehenengo Baztanen erroldatuentzat irekiko dira zerrendak, horretarako egutegian finkatuta dauden datak errespetatuz, eta ondotik, Baztandik kanpo erroldatuak izena eman dezakete tokia izanez gero.

b. Izena emateko datak eta jardueri dagokion informazioa Giltxaurdi Kirol instalazioko web gunean argitaratuko dugu. Horretaz gain, sare sozialetan eta Baztango udaleko web orrian ere argitaratuko da informazio guztia. Giltxaurdi UKIn ere informazioa jaso daiteke.

c. Izena emateko, aurreinskripzio inprimakia behar beala bete, eta argazki bat, NANaren fotokopia eta kontu zenbakiaren ziurtagiria atxikitu beharko dira web gunean aurreinskripzioa egiteko momentuan.

d. Aurreinskripzioa egiteak ez du jardueran onartua zaudela ziurtatzen. Aurreinskripzioa egin ondotik, aurreinskripzioa egin duen pertsonari instalaziotik posta elektronikoko bidez ikastaroan onartua dagoen edo ez jakinaraziko zaio.

e. Ikastaroetan izena ematen duten pertsonen onarpena jasotzen duten momentuan ikastaro osoa kobratuko zaie banku-helbideratze bidez.

f. Norbaitek ordainketa egiteko epea pasata ez badu ikastaroa ordaindu, edo ez badu behar den dokumentazioa aurkeztu, baja emanen zaio ikastarorik, eta berriro apuntatu ahal izateko prozedura hasieratik egin beharko du baldin eta tokirik badago.

g. Behin ikastaroa ordainduta diru hori ez da inola ere itzuliko.

h. Ordainketa bankuz kobratu ondoren norbaitek erreziboa itzultzen badu, Giltxaurdi UKIko langileek deituko dute itzulita dagoela abisatzeko. Errezibo hori ordaindu arte, pertsona hori ezingo da jarduera egitera etorri. Ez bada ordaintzen, diru kopuru hori zorra bezala geldituko da, eta pertsona horrek ezingo du Giltxaurdi UKIn jarduerarik egin zor hori kitatu arte

#### **Ikastaroei buruzko ainbat ohar:**

- a. Edozein ikastarotan onartuta dagoen pertsonak bere tokia izanen du ikastaroan. Toki hau pertsonala eta transferiezina izanen da, eta ezingo da inoiz bertze norbait bere ordeztu ikastaroan sartu.
- b. Kirol jarduera guztietan gutxienezko eta gehienezko izen emateko kopurua izanen da.
- c. Edozein ekintzetan gutxienezko jende kopurua apuntatzen ez bada, Giltxaurdi UKIk jarduera bertan behera uzteko eskubidea dauka.
- d. Behar baino jende gehiagok jarduera batean izena emanaz gero, jardueratik kanpo gelditzen direnak itxaron zerrenda batetan apuntatuak izanen dira, eta tokirik izanez gero, itxaron zerrenda horretatik deituko zaie.
- e. Jarduerara, izena eman den egunetan eta ordutegian etorri behar da, ezin da taldez aldatu nahiz eta jarduera bera izan. Aldaketaren bat egin nahi izanez gero, instalazioko arduradunari baimena eskatu beharko zaio, eta berak ez badu aldaketa onartzen ezin izango da egin.
- f. Behin jarduera hasita norbaitek apuntatu nahi badu, lekua izanez gero, Giltxaurdi UKIk erabakiko du pertsona hori jardueran sar daiteken edo ez. Kontutan hartuko da jarduera hasita ikastaroa behar den bezala jarraitzeko aukerarik izanen duen, gainerako ikasleei eragozten ahal dien etab. Sar daitekela erabakitzen bada, izena ematen den momentutik ordaindu beharko du ikastaroa.

### **5. Instalazioaren erabilera**

#### **5.1. Erabiltzaileen bete behar orokorrak**

- a. Gainontzeko erabiltzaileak eta instalazioko langileak errespetuz tratatzea.
- b. Instalazioko langileen arauak betetzea, bai igerilekuan eta baita instalazioko bertze tokietan ere.
- c. Instalazioa modu egokian erabiltzea.
- d. Adingabeen segurtasunaz arduratzea.
- e. Instalazioko arautegia betetzea.
- f. Instalazioko ordutegia errespetatu eta hesteko ordurako kanpoan egotea.
- g. Abonamenduaren txartela harrerako irakurgailu elektronikotik pasatzea.
- h. Debekatua dago jatea eta edatea instalazio osoan horretarako egokitutako gunean izan ezik.
- i. Instalazioa eta kanpoko gunea garbi mantentzea.

j. Debekatua dago, patinete, bizikleta eta horrelako tresnak instalazioko eremuan sartzea. Horretarako kanpoko aldean dagoen aparkalekua erabili beharko da.

## 5.2. Igerilekuan bete beharrekoa

a. 8 urte baino gutxiago duten haurrak heldu batekin sartu beharko dira ur gunera pertsona hau bere arduraduna izango delarik.

b. Igerikeluko zonaldean ezin da kanpoko oinetakoekin ezta arroparekin sartu.

c. Udako denboraldian izan ezik, derrigorrezkoa da igerilekuan txanoa erabiltzea.

d. Igerilekuan bainujantzia erabiltzea derrigorrezkoa da, ezin da bertze edozein arroparekin uretan sartu.

e. Igerilekura sartu aurretik duxatzea derrigorrezkoa da.

f. Bainu gunean ezin da jan.

g. Debekatua dago korrika egitea, salto egitea, buruz botatzea, bultzatzea..., eta erabiltzaileentzat arriskutsua edo molestakorra den edozein gauza egitea.

h. Debekatua dago igerilekuan materiala erabiltzea ( taulak, txurroak, pilotak etab...). Igeriketa ikastarotan izan ezik, eta beti sorosleak baimenduta.

i. Instalazioan dagoen materiala bertan erabiltzeko soilik izango da, beti monitore edota sorosleak baimenduta.

j. Soroslea da igerilekuko arduraduna eta berak erraten duena errespetatzea ezinbertzekoa da. Arauak errespetatu ezean, berak du jendea kanporatzeko eskubide osoa.

k. Uretan edozein min sentitzen bada, uretik ateraeta sorosleari esan beharko zaio

l. Makilajea, krema edota estaldurak izanda igerilekura sartzea debekatua dago.

m. Gaixotasun infekzio-kutsakorra duen pertsonak ezin dira igerilekuan sartu.

n. GILTXAURDI, S.L.U.-k kale bakoitzean zenbat pertsona batera igeri egiten arituko diren ezartzeko aukera izango du. Zenbaki hau Nafarroan igerilekuak kudeatzen dituen arautegian oinarrituko da. Era berean, igeri librean aritzeko diren kaleak izateko aukera izango du ere, beti ere ikastaroetan erabili behar badira.

ñ. 14 urte baino gutxiago duten pertsonak ezin dira jakuzian sartu.



o. Igerilekuan behar baino jende gehiago egonez gero, sorosleak jendea ur gunetik kanporatuko du tokia izan arte.

### **5.3. Gune termalean bete beharrekoa**

- a. Sauna lehorrean eta lurrunezko bainuan sartzeko, eskuoihala derrigorrezkoa da .
- b. 18 urte baino gutxiago duten pertsonak ezin dira gune termalean sartu.
- c. Ezin da gune termalean jan eta edan.
- d. Saunetara sartu aurretik metalezkoak diren objektuak, betaurrekoak, lentillak etab. Kendu beharko dira.
- e. Saunen barruan edozein min sentituz gero, atera eta sorosleari erran.
- f. Debekatua dago saunan edozein likido botatzea.
- g. Gune termalean paratuta dauden arauak bete behar dira.

### **5.4. Muskulazio gelan bete beharrekoa:**

- a. 16 urte baino gutxiago duten pertsonak ezin dira muskulazio gelan sartu.
- b. Ezin da muskulazio gelan txankletekin edo oinhutsik sartu. Kirol egiteko arropa eta oinetakoak erabili beharko dira.
- c. Muskulazio gelako makinak erabili ostean garbitu behar dira.
- d. Derrigorrezkoa da eskuoihala erabiltzea.
- e. Norbait itxoitzen egonez gero, makinak gehienez 30 minutuz erabil daitezke.
- f. Entrenamendua bukatzen denean materiala bere tokian utzi behar da.
- g. Debekatuta dago janaria edota kristalezko botilak muskulazio gelan sartzea.

### **5.5. Kirol anitzeko gelan bete beharrekoa**

- a. Kirol anitzeko gela Giltxaurdi UKIk antolatutako ekintzetan bakarrik erabil daiteke.
- b. Monitoreek baimentzen duten materiala bakarrik erabil daiteke.
- c. Higiene arrazoiak direla eta, ezin da kanpoko oinetakoekin sartu.
- d. Jarduera bukatzen denean materiala bere tokian utzi behar da.



### **5.6. aldageletan bete beharrekoa**

- a. Ezin da jan eta edan.
- b. Debekatua dago siletak, patineteak edo antzeko edozein tresna aldageletan sartzea.
- c. Higiene arrazoiak direla eta, aldagela barruan txankletekin ibili behar da.
- d. Debekatua dago depilatzea, bizarra kentzea etab.
- e. Objeto pertsonalak takiletan sartu beharko dira, Giltxaurdi UKi ez da instalazioan gertatzen diren objektu pertsonalen galeretaz edota lapurketetaz aduratuko.
- f. Takillak hutsik geratu beharko dira jardunaldiaren bukaeran. Debekatua dago takilletako giltza instalaziotik ateratzea. Instalazioa hetsi ondoren takillak hustuko dira, eta Giltxaurdi UKI ez da takilen barnean aurkitzen denaren arduraduna izango.
- g. Arropa aldatzeko gelak erabili ondoren, arropa atera eta takilletan sartu behar da. Arropa ezin da aldatzeko gela barruan utzi, denek erabiltzeko baita. Giltxaurdi UKIko langileek arropa bertan ikusiz gero, hortik kenduko dute, eta ez dira arropa horren arduradunak izanen.

### **5.7. kanpoko gunean bete beharrekoa**

- a. Debekatua dago horretarako egokitua dagoen gunetik kanpo jatea eta edatea.
- b. Debekatua dago zaborra lurrera botatzea.
- c. Kanpoko aldean dauden mahaiak jateko eta edateko erabiliko dira. Otordua akitu ondoren mahaiak libre utzi beharko dira bertze erabiltzaileek erabili ahal izateko.
- d. Debekatua dago futbol zelaiko hesiaren gainetik pasatzea.
- e. Instalazioa hetsi behar den ordurako jende guztia instalazioko gunetik kanpo egon behar da.
- f. Udako denboraldian debekatua dago baloiekin, pilotekin etab... jolastea.
- g. Debekatua dago kanpoko gunean pixa egitea.
- h. Debekatua dago sonbrillak lurrean sartzea, erregadio sistema hauts daiteke eta. Sonbrillak lurrean paratzeko harrerako langileei euskarria eskatu.



**Baztango**  
Udala

## **6. Arau-haustek**

Edozein pertsonak instalazioko arauak errespetatu ezean, Giltxaurdi UKIko langileek ahalmena dute pertsona hori instalaziotik kanporatzeko edo abonatu txartela kentzeko.

Giltxaurdki UKIko kudeatzailea izanen da arauak hautsi dituen pertsona horri dagokion zigorra ezarriko diona.